



Beasaingo Udala

garabide
elkartea

	
BEASAINGO UDALA	
2017 ABE. 28	
SARRERA-ENTRADA	IRTEERA-SALIDA
Zk. N°	Zk. N°

Beasainen, 2017ko abenduaren 5ean

**BEASAINGO UDALAREN eta GARABIDE ELKARTEAREN arteko
LANKIDETZA HITZARMENA**

SINATZAILEAK

ALDE BATETIK:

AITOR ALDASORO ITURBE, [] Beasaingo Udaleko alkate-presidentea,

BESTETIK:

ANDONI BARREÑA AGIRREBEITIA [] Garabide elkartearen presidentea,

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, hitzarmen hau sinatzeko eta, hori dela eta,


AZALTZEN DUTE

GARABIDE ELKARTEAK urteak daramatza garapenerako euskal lankidetzaren barruan kooperazio ildo berri bat lantzen: garapen-bidean dauden herrietako hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzen, honako helburuarekin:

- Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuarekin lankidetzaren bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.

Helburu hau bi modu hauetan landu daiteke:

1. Munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuak eragileekin lankidetzaren proiektuak garatuz (lankidetzaren proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor batzuetan gauzatzen dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriz).


[]





2. Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuak lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatuz eta horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Beasaingo Udalak, bere aldetik, diru-laguntzak eman ohi ditu, garapen-bidean dauden herrietan proiektuak sustatzeko, eta egoki ikusi du lan-ildo berri bat hastea, Garabide elkartearekin batera, aurrerantzean hizkuntza normalizatzeko egitasmoak ere sustatuz.

Hitzarmen hau egitearen arrazoia diru-laguntzen alorrean indarrean dagoen araudia da; bereziki nabarmentzekoak dira diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 3. artikulua eta diru-laguntzei buruzko Lege Orokor horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 2. artikulua. Indarrean dauden lege arau horien arabera, hitzarmenak honakoak jaso beharko ditu:

Aurreko guztiagatik, bi aldeek, ados jarrita, hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

1.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmenaren xedea honako hau da: GARABIDE ELKARTEAREN jarduera eta proiektuak finantzatzeko diru-laguntza zuzenaren baldintzak arautzea.

GARABIDE ELKARTEAK orokorrean jarduera hauek gauzatzeko jaso ahal izango du diru-laguntza:

- Munduko hizkuntzen biziberritze prozesuak indartzen laguntzeko ekintzak gauzatzeko, beharren arabera lehentasun hauek errespetatuz: modu intentsiboan kitxua, nasa, nahuatl eta kaqchiquel herrienak eta, bigarren mailan, maputxe, aimara, maya yukateko, amazigh eta kurduenak.

- "Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa" bi urtetik behin antolatzeko, beti ere proiektuaren finantziario iturri nagusia lortzen bada, hau da Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak ateratako FOCAD deialdian proiektuak diru-laguntza jasotzen badu. Aditu Ikastaroa GARABIDE Elkartearen eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultatearen arteko unibertsitate titulua da, 600 orduko iraupena du eta euskararen esperientziatik abiatuta hizkuntza-komunitateetako ordezkariak hizkuntzak biziberritzeko estrategietan formatzea du helburu. Aditu Ikastaroan beasaindarren parte hartzea sustatuko da.

- "Ikastaldia" bi urtetik behin antolatzeko, beti ere proiektuaren finantziario iturri nagusia lortzen bada, hau da Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziatik proiektuak diru-laguntza jasotzen badu. Ikastaldia Soziolinguistika Klusterrarekin batera antolatutako hizkuntzak biziberritzeko gidaritzan formazio intentsiboa da, 140 ordukoa, estrategia orokorretan zentratua eta gidaritzan profila duten eragileei zuzendua. Ikastaldian beasaindarren parte hartzea sustatuko da.

Andoni Berro





- Beasainen sentsibilizazio ekintzak antolatzeko. Sentsibilizazio ekintza hauek bi hartzaile talde estrategikoetara bideratzea lehenetsiko da: alde batetik, herrian dauden hezkuntza alorreko zentroetara eta, bestetik, herrian bertan euskararen biziberritzean esku-hartze zuzena izan duten taldeetara. Horrela, jakintza-fluxua aldebikoa izatea bermatuko da, hau da euskaldun gisa gure esperientzia partekatu eta, aldi berean, beste komunitateengandik ikasteko aukera eskainiko da.

Trukean, merezitako aitortza publikoa egiteko konpromisoa ez ezik, herritarrengan hizkuntza minorizatuetik sentsibilitatea pizteko Udalarekin adostutako ekimenean parte hartzeko konpromisoa hartzen du Garabidek.

Horretarako, hitzarmen honen iraupen aldian, urtez urte (lehenengo hiru hilabeteetan) proiektu zehatzak aurkeztuko ditu GARABIDEK Udalaren Osoko Bilkurak ontzat eman ditzan.

Onartzen diren proiektuak izango dira, hain zuzen ere, diruz lagunduko direnak.

2.- GARABIDE ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

GARABIDE ELKARTEAK honako betebeharrak hartzen ditu bere gain, Udalaren diru-ekarpena jasotzearen truke:

- Diruz lagunduko diren proiektuak gauzatzea.
- Proiektu horiei buruzko unean uneko informazioa ematea Udalari.
- Dagokion epean, proiektuen gauzatze-mailari buruzko txostena aurkeztea eta diru-kontuak egoki zuritzea.
- GARABIDE elkarteak betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela egiaztatu beharko du diru-laguntza jaso aurretik.

3.- EKARPEN EKONOMIKOA KOPURUA ETA ORDAINTZEKO MODUA

- Beasaingo Udalak garapenerako lankidetzara bideratzen duen udal sarrera arrunten %1ari dagokion %25a bideratuko du proiektu honen lankidetzarako eta hala jasoko da aurrekontuan.
- Diru-laguntza hau bateragarria izango da, Administrazio Publikoek edo bestelako erakunde pribatuak emandako beste edozein diru-laguntzarekiko, baina diru-laguntza guztien zenbatekoak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren guztizkoa gainditu.
- Diru-laguntza ordaintzeko modua honakoa izango da: urteko proiektuak ontzat ematen direnean ordainduko da onartutako diru-laguntzaren %80a, eta gainerako %20a diru-laguntza zuritakoan.

Antoni Perez





4.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Diru-laguntzaren ordainketa zuritzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Diruz laguntzeko onartu diren proiektuen memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu diren eta zer emaitza izan den adierazi behar dira.
- Proiektu horietan izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.

Diru-laguntzak ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzan eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari aurkeztutako ordainketa agiri guztien %10a aurkezteko eskatuko zaio.

Proiektuak onartzeko akordioan bertan adieraziko da zenbatekoa den proiektu bakoitzeko onartzen diren zeharkako gastu edo gastu orokorrak (zuritu beharrik ez dutenak). Portzentaje horrek inolaz ere ez du gaindituko proiektuaren kostuaren %10a.

- Diruz lagundutako proiektuak finantzatu dituzten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Urtez urteko proiektuak ontzat ematen direnean zehaztuko dira zuritzeko epea eta azken ordainketaren data.

5.- JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen batzorde bat osatuko da, hitzarmen hau garatzerakoan izan litezkeen interpretazio arazoak eta bestelakoak konpontzeko.

Batzorde hori paritarioa izango da eta lau kidek osatuko dute: Udalak izendatutako bi eta GARABIDE ELKARTEAK izendatutako beste bi.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, batzordea bi aldeetako edozeinek proposatuta bilduko da behar den guztietan, jarduerak zehazteko edota lehen klausulan aurreikusitakoak bezalako ustekabekoak konpontzeko.

Hitzarmenaren indarraldiaren azken urtean Jarraipen batzordeak hitzarmena luzatu, aldatu edo bukatutzat eman behar den eztabaidatuko du.

Nolanahi ere, Jarraipen batzordeak txosten bat igorriko dio Udal Osoko Bilkurari, eta erabakiko du hitzarmena luzatu, aldatu edo bukatutzat emateari buruz.

6.- HITZARMENAREN ERAGINAK ETA INDARRALDIA

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horiexek dira, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak behartuko ditu 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta LAU urteko indarraldia izango du; hau da, 2021eko abenduaren 31a arte.





Beasaingo Udala

garabide
elkartea

Adostasun seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu.

AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO alkatea



ANDONI BARREÑA AGIRREBEITIA

GARABIDE elkarte

